EUSKAL LITERATURA II·
IRAKASGAIKO JARDUERAK

1.JARDUERA· ITXASOARI BEGIRA-Mikel Arregi

Itsasoari begira
zer dezaket desira?
bakarrik nago eta
nik behar zaitut
baldosa kuadratuz
jantzi dituzten azeretan ibil gaitezen,
teniseko paseo luzean
lanbro fina manaren gisa
gure gainera erortzean.

Harroken kontra
zure golpea
ez da tristea
harkaitz artean,
zure soinua
bertso doinua.

Entzun dut zure hotsa
eta zarratatu egin didazu bihotza
zure ondoan
paret gainean
zabalera eta luzerarik ez denean
hots zure hotsean
indar zure indarrean.

Mikel Arregi, olerkiaren autorea, Nafarroako herri txiki batean jaio zen, Areson, baina hamar urte zituela joan zen Donostiara bizitzera, Antiguora hain zuzen ere. Honen harira, bere lanetan baserri giroko zein hiri handiko zantzuak topa ditzakegu. Hala ere, aipatzekoa da ez dela oso idazle oparoa izan, poesia-liburu bakarra idatzi du eta narratibari dagokionez ere, nobela bakarra. Olerkigintza aztertuko dugunez, esan behar da bere idazmoldean eragina izan dutela Arestik, Letek zein I. Sarasolak, eta era apalago batean, J.A. Artzek eta J. Azurmendik. Enuntziazio moduari erreparatuz, ITXASOARI BEGIRA, poeman, egileak "ni" poetikoa darabil, aditzetan ikus dezakegun modura (*dezaket, nago, zaitut*); galdera-erantzun baten bitartez gaira gerturatzen gara, *zer dezaket desira?/ bakarrik nago / eta nik behar zaitut.* Gaia beraz maitasun istorio bat da, bakardadetik kontatzen zaiguna, galera baten zantzuak topa ditzakegu.

Hurrengo bertso-lerroetan aginteraz hitz egiten dio maiteari, *ibil gaitezen*. Hala ere, uler dezakegu gonbidapen bat dela, subjuntiboan, agindu bat baino gehiago. Ahapaldi berean, egileak kontatzen digu non aurkitzen den, horretarako pista ezin hobea izanik *teniseko paseo luzea,* honek argi erakusten digu Donostiako Haizearen-orraziko paseoan daudela, hain justu, idazlea hamar urterekin bizitzera joan zen hirian. Bestetik, ahapaldi berdinean *lanbro fina manaren gisan / gure gainera erortzean,* badirudi esan nahi digula "manaren gisa" jausiko zaiela zerbait, biak nahastuko direla, ulertzera ematen da, "zu" hori jausiko zaiola gainera. Manak erlijio judutarrarekin du lotura, autoreak konnotazio positiboekin darabil, lanbro horrek bere arima elikatzen duela adierazi nahiean edo.

Bigarren ahapaldira salto eginez, argi ikus dezakegu nori zuzentzen zaion, paratestuaren laguntzaz baliatuz, badakigu itsasoari zuzentzen zaiola, *harroken kontra zure golpea*. "ni" poetikoa, itsasoari zuzentzen zaio, Haizearen orraziko paseotik bakarrik paseatzen doanean, bakarrik baina itsasoaren konpainian. Ahapaldi honetan bere soinuaren aipamena egiten du, esanez ez dela soinu tristea.

Azkeneko ahapaldian, klimax momentua topa dezakegu. Malenkoliaz beterik hasitako poema, sentimenduz blai amaitzen da; bakarrik sentitzen zena, itsasoak eta honen soinuak lagunduta amaitzen baita, itsasoaren indarrak indartzen du bera ere.

Olerkian zehar itsasoaren soinuak badu garrantzia, eta ez soilik egiten dizkion aipamenengatik. Metrikan erreparatzen badugu nahiko irregularra dela ikus genezake, nire aburuz, honek itsasoko olatuen joan-etorria imitatu nahi du.

Tematikari dagokionean, sentimenduak dira gai nagusia, gehienetan ideia abstraktu bat izaten dena; sentimenduei buruz hitz egiteko, orainaldia erabitlzea ez da nolanahiko hautua, indar komunikatibo eta expresibo itzela baititu.

Bukatze aldera, testuak bere helburuak betetzen dituela esango nuke. Garbi uzten digu autoreak, itsasoarekiko duen maitasunaz hitz egiten digula, honek egin diezazuken konpainiaz, eta horretarako erabiltzen dituen sinboloak ondo darabiltzala esango nuke.

2. JARDUERA· TRIKUARENA- Bernardo Atxaga (1990)

Esnatu da trikua habi hosto lehorrez egindakoan,
eta dakizkien hitz guztiak ekartzen ditu gogora;
gutxi gora behera, aditzak barne, hogeitazazpi hitz.

Eta gero pentsatzen du: Amaitu da negua,
Ni trikua naiz, Bi sapelaitz gora dabiltza hegaletan;
Marraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel,
Zein putzu edo zulotan ezkutatzen zarete?
Hor dago erreka, Hau da nire erresuma, Goseak nago.

Eta berriro dio: Hau da nire erresuma, Goseak nago,
Marraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel,
Zein putzu edo zulotan ezkutatzen zarete?

Ordea bertan gelditzen da bera ere hosto lehor balitz,
artean ez baita eguerdia baino, lege zahar batek
galerazi egiten baitizkio eguzkia, zerua eta sapelaitzak.

Baina gaua dator, joan dira sapelaitzak, eta trikuak,
Marraskilo, Zizare, Zomorro, Armiarma, Igel,
Erreka utzi eta mendiaren pendizari ekiten dio,
bere arantzetan seguru nola egon baitzitekeen
Gerlari bat bere eskutuaz, Espartan edo Corinton;
Eta bapatean, zeharkatu egiten du
belardiaren eta kamio berriaren arteko muga,
Zure eta nire denboran sartzen da pauso bakar batez;
Eta nola bere hiztegi unibertsala ez den
azkeneko zazpi mila uneotan berritu,
ez ditu ezagutzen gure automobilaren argiak,
ez da ohartzen bere heriotzaren hurbiltasunaz ere.

Bernardo Atxagak, 1990an idatziriko olerkia izango dugu aztergai. Baina zer dakigu Bernardo Atxagari buruz? Jose Irazu benetako izenez, Asteasun jaio zen. Euskal literaturan idazle nabarmenetakoa dugu, 1988an idatzi zuen *Obabakoak* lanari esker, euskal idazle salduena eta itzuliena izatera iritsi da. Erreferente bihurtu da euskal literaturan, genero guztietan aritu baita lanean, hala ere, gaur egun gutxiago olerkigintzan, antzerkian eta gidoigintzan; gehien bat, eleberrigintza edota ipuingintza dira genero gogokoenak, saiakarerarekin batera; haur-literaturako idazle oparoa dugu.

Aztertuko dugun olerkia errealismoaren aldikoa da, eta autorean olerkigintzako etapakoa, nahiz eta arestian esan bezala ez da gehien landu duen generoa. Idatzi zuen lehen poema *Etiopia* izan zen, poema barroko xamarra zena; beranduago etorriko zen aztergai dugun *Trikuarena,* honetan, xumetasunaren bilaketa dugu nagusi, eta horretarako darabilen formak ipuin batenaren antz handia du, esan genezake ipuin bat dela olerki forman.

Gaiari helduz, eztabaida ugari izan dira poema honekin; izan ere, testuartekotasunaz fidatuko bagina, pentsatuko genuke idatzi dituen beste olerki batzuetan oinarrituz, *trikua* euskara izango zela, eta beraz olerkia euskarari buruzkoa izango zela. Aitzitik, olerki hau hondamendi ekologikoari buruz ari da, gizakiak naturan egin dituen txikizioetaz, eta animaliek pairatzen duten minaz. Askotan testuartekotasunera mugatzeak, benetako gaietik urrundu gaitzake.

Egiturari begira, sintaktikoki oso sinplea dela ikus daiteke, lehen esan bezala ipuin baten modura kontatzen baita. Honetarako lokailu ugari baliatzen ditu, polisindetona ematen dena, hau da, lokailuen pilaketa. Bostgarren ahapaldiko lehen hitza beste lokailu bat dugu, eta ez edozein lokailu, baizik eta aurkaritza adierazten duen lokailua *baina* hain zuzen ere, honek adierazten digu bertso-lerro honetatik aurrera aldaketak etorriko direla.

Edukia azertuz, lehenengo ahapaldian aurkezten zaigu olerkiko protagonista, trikua. Honek dakizkien hitz gutxiez hitz egiten digu gero, bigarren ahapaldian argitzen zaigu honen esanahia, animali izenen zerrenda luze bat ematen digunean; adierazi nahi diguna zera da, hori dela trikuak ezagutzen duen errealitatea, horri buruz soilik dakiela. Sapelaitzaren amenazaren inguruan ere esaten digu, hau baita Trikuarentzat etsaia; jakin ez dakien arren, gizakia dela bere "erresuma"ren etsairik bortitzena.

Hirugarren ahapaldian errepikapen batekin egiten dugu topo, esplizituki dio gainera *eta berriro dio:* ipuin batean egingo litzateken bezala.

Laugarren ahapaldian, beste aurkakotasun lokailu batekin hasten dena: *ordea*, erakusten zaigu, trikuaren hautua zein den, bere burua babesten du ezagutzen dituen etsaiengandik, hala ere, ikusiko dugunez ez ditu denak ezagutzen, hasieran esan zaigun bezala, *esnatu egin* baita, lo egon eta gero.

Bosgarren ahapaldian, azkenekoan, askatzen da korapiloa, arestian esan bezala, hemen dator aldaketa. Gaua joan dela adierazten zaigu, eta honekin trikuak ezagutzen dituen etsaiak. Indartsu sentitzen da, eta azpimarragarria da *Esparta* eta *Corinto*ren aipamena, gerlari bat bezela erakusten zaigu trikua, handitasun adierazi nahi zaigu, Akilesekin lotzen da trikua, eta mitoarekin paralelismoa sortzen hasten da. Txikia den animalia, handitasunez erakusten zaigu, baina benetako izaera lehenengo ahapaldietan dugu, izaki txikia, ingenuoa.

Bukatze aldera, mamitsuak dira azken bertso-lerroak, *Gerlariak*, trikuak alegia, beldurrik gabe gurutzatzen du bidea, eta autoreak ematen digu esaldi garrantzitsu bat non gugana zuzentzen den zuzenean: *Zure eta nire denboran sartzen da*, hau da, animalien tenpoa eta gure, gizakion tenpoa,

trikuak azken hau ez du ezagutzen. Bi denbora ezberdin horiek gurutzatzearekin batera, gure espazioak ere batu dira; hau da, espaziotik denborara salto antologiko bat egiten du. Azkeneko lau bertso-lerroetan, berriz aipatzen zaigu trikuaren ingenuotasuna:

Eta nola bere hiztegi unibertsala ez den
azkeneko zazpi mila uneotan berritu,
ez ditu ezagutzen gure automobilaren argiak,
ez da ohartzen bere heriotzaren hurbiltasunaz ere.

Esan nahi diguna zera da, trikuak ez duela ezagutzen gizakiak bere erresuman egin duen guztia, inbaditu dituen espezie berri eta indartsu bat sartu dela haien ekosisteman. Indartsu sentitzen den erresuman, espezie zapaltzaile baten plaga zabaldu dela. Amaiera irekia badu ere, pentsa dezakegu zein den trikuari dagokion patua, hots, heriotza.

Amaitze aldera, sinbologian erreparatuz, eta helburuari helduz, autoreak betetzen duela esango nuke. Poema honen bidez naturan egin dugun, eta egiten jarraitzen dugun kalteari buruz hitz egin nahi zigula uste dut nik, eragin diezaiogun buruari, eta kontzientzia ekologista har dezagun.

3.JARDUERA· NESKATX URDIN JANTZIA-Xabier Lizardi (1927)

Udaberri, uste-ezik,
arki dut basoan.
Neskatxa da, ta urdinez
jantzita zijoan.
Urdina jazkia, ta
begia areago:
halakorik itsaso
barean ez dago.
Begi eder-goseok,
ase zakidate!,
inon ezpaiditake
ederrik, hau beste.

Mamia du nahasian
oretua, inolaz,
Loreil-laino goiztar ta
marrubi-odolaz.
Arbazta igarrarena
bezin su zolia
Egun'ek biztu dio
jorik iledia.

Haren oinek ikutzen
ote dute lurra?
Ezetz diot: ez baita
malgutu belarra.
Biluzik zan basoa
negu-ondarrean,
neskatx urdin jantzia
bertara danean.
Zebilela, hats epel bat,
usaiez joria,
dama; ta adar beltzetan

erne da bizia.
Orriz-orri jazten da
basoa, gozoro...
Bakan-bakanka, lehenen...
Sarri-sarri, gero.
Eguzki itzulberriak
(maitari goiztarrak)
munkatu du basoa,
(munkatu senarrak)
Emazte ezkonberria
dala uste basoa...
Haren dardar emea
Haren par gozoa!
Ustez, buru gainean
gaua dut, argia,
hamaika izar urdinen
dirdirak josia...
Ustez, ur orlegiak
nituan oinean,
izarrok ziralarik
islatzen urean...
Gezur amesgarria,
lilurak sortua!
Goien urdina nuan,
ostoak xehetua;
behean, berriz, urrezko
jarioz argiak
belarrean ohi ditun
begibil zoliak.
Marmarra dabil goien,
ezin daikezuna
hots ezti dan igerri,
ala ixiltasuna.
Bat-batez, ehun txoriek
eztarriak eten,

ta aberaski zabala
bitxiz jantzi zuten…

Egun-ehunez jantzia
berrikusi nahiez,
bira ditut begiak,
bira, baina... inon ez!
Non da, non da sorgina,
basoak maitea?
Begiaz dut, alperrik,
jo haren bidea.
Joana zan... Joana,
neri, bihotzean,
kezka beldur-eztia
josi ondorean...
Maitetasun-azia:
ene udaberria:
neskatx tankerakoa
ta urdinez jantzia!...

Xabier Lizardi, Jose Maria Agirre benetako izenez, Zarautzen jaio zen 1896an, eta 1933an zendu zen. *Euskaltzaleak* elkarteko buruzagitza-ardurak bete zituen, baina Aitzolekin izandako eztabaiden harira, kargu hauek utzi zituen, baita Gipuzko Buru Batzarreko idazkaritza ere. Eztabaiden erroan desadostasun bat aurki dezakegu, izan ere, Lizardi ez zetorren bat Aitzolek literaturarekiko zuen ikuspegi praktikoarekin. 1925etik aurrera, *Euskal esnalea* aldizkarian zein, *El día* eta *Euzkadi* egunkarietan hainbat poesia lan argitaratu zituen. *Euskaltzaleak* elkarteak antolaturiko lehiaketan eman zituen ezagutzera bere lanik onenak, eta 1931n saria irabazi zuen, zilarrezko haritz adarra.

Lizardiren lehen etapan, 1916-1919 bitarte , erromantizismoaren eragina nabaria da, euskal idazle erromantiko bat bezala izenda genezake. Erromantizismoa zen nagusi mende hasierako euskal lirikan, eta bere lanetan aurreko mendeko elezaharren zantzuak topa ditzakegu.

Bigarren etapan, 1925tik aurrera, hasi zen bere lanak pseudonimoarekin sinatzen, eta izen honekin egin da ezagun. Bere olerkietan, Sabino Aranaren arauak jarraitzen direla ikus daiteke, horrez gain, metrikari dagokionez modernismoaren aztarnak ere baditugu, ahapaldi laburrak eta arinak. Bere idazkera bakarra zen, eta laster hasi zen erreferentzialtasuna irabazten. Hizkuntzaren indar adierazlea bilatzen hasiko da estetika kontzeptista eta estilizatu batekin, hizkera poetikoa errotik aldatu nahiko

du, perfekzio formal eta intelektualaren bila, esan nahi zena argi esan, baina era sentimental batean, oreka bilatu nahi zuen; emozio eta ideien arteko oreka. Gainera, edertasun kanon berri bat propsatu zuen, iraun zuena euskal literaturan. Aztergai dugun olerkia, bigarren etapan kokatzen da, 1927an idatzia da, beraz ikusgai izango ditugu erromantizismoaren zantzuak, baina ez era zaharkituko zantzuekin, Lizardiren abangoardia nahiarekin baizik, hizkera berritu horrekin.

Enuntziazio moduari helduz, olerki honetan "ni" poetikoa neskatxa batez itsu-itsurik maiteminduta dagoen gizabanako batek betetzen du, laudorioak besterik eskaintzen ez dizkiolarik idatzi guztian zehar; maite duen, baina badirudi lortu ezin duen pertsona bati zuzentzen zaio, argumentu erabat erromantikoa. Hala ere, sakoneko gaia, ondo erreparatzen badugu, konturatuko gara neskatxa gaztea ez dela udaberriaren metafora bat baino. Neskatxa goraipatzen eta laudorioz betetzen duenean beraz, udaberria goresten du. Genero lirikoa den heinean, hitzekin jostatzeko askatasuna hartzen du autoreak, hitzekin ezkutuka esaten dena esanez.

Maitasunaren esparru semantikoan dabil une oro poeta, gorazarre egiten dio neskatxari, udaberriari alegia, txundituta, liluratuta dauka. Olerkiaren muina deskribatzeko darabilen hiztegia beraz zuzenki honi lotua doa.

Maila testualera joz, paratestua aztertzeari ekingo diot lehendabizi. Izenburuak argi esaten digu nori zuzenduko dion olerkia, neskatx urdin jantziari alegia; hasieran ez badakigu ere, olerkiak erakutsiko digu udaberriari buruz ari zaigula idazlea.

Egiturari dagokionean, lau ahapalditan banatzen da, luzera irregularrekoak izanik, baina bertso-lerro motz eta arinekin arestian esan bezala, era horretako idazkerarekin esperimentatzen hasi zen Lizardi. Ahapaldiak irregularrak izanagatik ere, erritmoa gordetzen dutela aipagarria dela deritzot.

Lehenengo ahapaldian, 12 bertso-lerrok osatzen dute, hiperbolea da nagusi. Une oro esagerazioa darabil edertasun izugarri hori azpimarratzeko *halakorik itsaso barean ez dago* edota *inon ezpaiditake ederrik, hau beste.* Bestetik, azpimarratuko nuke urdin koloreari ematen dion garrantzia, amaieran sinbologiaren alorrean aztertuko dudana.

Bigarren ahapaldian, bertso-lerroz laburrena bada ere, mamitsua da. *Loreil-laino goiztar ta marrubi-odolaz* Loreila, maiatza izanik, udaberriari aipu zuzena egiten dio bertso-lerro honek. Ahapaldi honetan neskaren deskribapena egiten jarraitzen du, aurreko ahapaldikoari jarraiki. Koloreak aipatzen dira, urdina, horia, larrosa, udaberrian kaleek hartzen duten kolorea alegia. Galdera erretorikoak baliatzen ditu bere buruarekin solasean jarduteko, erantzunak era asertibo batean ematen ditu ondoren.

Hurrengo ahapaldietara joz, ikus dezakegu Eguzkiari ematen dion tratamendua mitologiko xamarra dela, bertan erakusten digunagatik uler dezakegu, udaberrian basoa eta Eguzkia ezkontzen direla. Hurrengo bertso-lerroetan gauaren inguruan hari zaigu, izarrak eta abar aipatuz, deigarria da, gaua ez

duela momentu iluntzat hartzen, baizik eta momentu argitzat, non izar urdinak dauden. Beste behin ere, kolore honen garrantzia agertzen zaigu.

Ondorengo bertso-lerroetan uler dezakegu amesten ari zela eta ametsetik esnatu dela, errealitatearekin topo egin duela. Sinestesia ere aurki dezakegu soinuez ari zaigun bitartean, hau da, zentzumenen nahasketa bat: *Bat-batez, ehun txoriek eztarriak eten, ta aberaski zabala bitxiz jantzi zuten…*

Amaiera biribila du, izan ere berriz aipatzen du neskatx urdin jantzia, eta aipatzen digu udaberria esplizituki.

Amaitze aldera, sinbologiari erreparatuko diot, urdin kolorea izan nahi nuke aztergai lana amaitzeko, urdin kolorea hainbat gauzaren ikur izan daiteke, baina lan honetan armoniaren, fideltasunaren eta egiaren ikurtzat joko nituzke, batez ere, armoniarena.

4.JARDUERA·ZELAIAN-Lauaxeta

Lora bila neskea
larrarantza dua.
Bera loretan lore,
lore gorengua.
Ene mattia,
zelaiko galpidia!
Larratik ittun dator,
ittun, bai, neskea.

Minez dozu barrena,
negarrez bijotza.
Bijotz barruban dozu
arantza zorrotza.
Ene gaxua,
ilun dozu gogua!
Zeure matrail-lorea
zimeldubaz dua.

Lore-bila neskea
larrarantza dua.
Lora-bila jutian
galdu dau gogua.

Ene mattia,
zelaiko galpidia!
Loretan lore zanak
galdu dau beria.

Lauaxeta, Esteban Urkiaga benetako izenez, 1905ean jaio zen Laukizen, baina txiki-txikitatik Mungiako "Lauaxeta" baserrian bizi izan zen, eta bertatik datorkio pseudonimoa. 1937an hil zuten, fusilatuta, Gasteizen. Aztergai dugun poema, 1935.urtean idatzi zuen, eta "Arrats beran" poema-bilduman argitaratu zuen.

Zelaian olerkian, gai nagusia zelai batean lore bila dabilen emakume baten egoera pertsonaleaan jartzen du arreta, bere egoera emozionalean, poetak nola ikusten duen. Gai nagusia beraz, tristeziarekin lotua dago, protagonistaren tristeziarekin.

Egiturari dagokionez, sei ahapalditan banatzen da, bakoitza lau bertso-lerroz osatua dago. Metrika nahiko irregularra du, eta honek musikalitate ezberdin ematen dio. Errimari dagokionez, errima kontsonantea da eta bertso-lerro bikoitietan ematen da.

Egitura gaiarekin uztartuz, lehenengo ahapaldian protagonistaren aurkezpena egiten zaigu, ezaugarri fisikoak emanez, ederra dela esanez. Horrez gain, espazioaren inguruan ere hitz egiten digu autoreak, eta honetan paratestuak laguntzen digu, hau da, zelai batean dago emakumea, loreak biltzen.

Bigarren ahapalditik aurrera ematen zaigu emakumearen goibeltasunaren berri, eta mintzatzen zaigun "ni" poetikoak enpatikoki ere pena sentitzen duela dirudi, olerkiaren tonua aldatu egiten baita puntu honetan. Hurrengo ahapaldietan, goibeltasunaren xehetasun gehiago emango dizkigu. Azken ahapaldian olerkia itxi egiten da, emakume alaia zen, lore ederrena, galdu egiten da, tristeziak irentsita. Poemaren egitura beraz, biribila da, protagonista aurkezten digu hasieran eta ondoren bere bilakaera kontatzen digu. "Ni" poetikoa hasieratik amaieraraino maitasunez zuzentzen zaio emakumeari, goretsiz hitz egiten dio; asko inporta zaio bere ezinegona, *ene gaxua, ene maittia* bezalako esaldi gertukoekin mintzo baitzaio, maite duen norbait dela ezagutzera emanez.

Atal bakoitzeko baliabide azpimarragarriak aztertuz, lehenengo ahapaldian emakume eta lorearen arteko konparazioa da esanguratsuena, poemari norabidea emango diona. Hurrengo ahapaldietan tristeziaren nolakotasunaz arituko zaigu, horretarako hainbat metafora baliatuz: *Bijotz barruban dozu arantza zorrotza* edota *Zeure matrail-lorea zimeldubaz dua.* Bestetik, azpimarragarria da "lore bila joatea" esamoldeari ematen zaion enfasia, ekintzaren atzean zerbait gehiago adierazi nahiko balu bezala.

Interpretazio ildoari eutsiz, lan hau idatzi zuen urtea kontuan hartuz, Gerra Zibila lehertu baino hilabete batzuk lehenago idatzi zen, autorearen ideologia apur bat ezagututa, poema honen benetako gai sakona, edo metafora nagusi bat atera genezake. Zelaia, ez da nolanahiko zelai bat, gudu-zelai bat baizik, emakumea gerlari bat da, eta hasierako indarra eta edertasuna gudaren alde ilun eta bortitza ezagutzen ez duelako da. Gerora ordea, tristurak hartuko du gain, gerraren aurpegi gaiztoena, ilunena, egiazkoena. Amaieran, gudu-zelaian erori den gerlariaz ari zaigula pentsa genezake, galdu duen lorea, galdu duen bizitza.

5.JARDUERA·MENDIGOXALIARENA-Lauaxeta (1931)

Basaldua'tar Kepa'ri

I

Mendi eze, ikurrin eder,
azke nai zattut axian.
¡Amar gasteren lerdena
makilla luzez bidian!

Mendi-bitxidor berdiok,
arin or duaz kantari:
«Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari».

Eta ixil dago arratsa
Euzkadi'ko lur-ganian.
¡Amar gasteren lerdena
makilla luzez bidian!

II

Gastedi orren didarra
bai-dala didar zolija!
Aberri baten samiñez
urduri dabil errija.

Azkatasun-goxalderuntz
sugarra dira basuak.
Sugarra basuak eta
zidar argija itxasuak.

¡Or duan ozte-aldrea
aberri-minez kantari:
«Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari».

III

Gaste orreik goruntz duaz
abesti eta ikurriñez.
Lañuan baño tiro otsak:
bedartza dager odolez.

Ikaraz duaz usuak,
mendija dago ixillean,
¡Amar gasteren lerdena
bixitza-barik lurrean!

Eta illuntziko bakian
norbattek darrai kantari:
«Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari».

Lauaxeta, Esteban Urkiaga benetako izenez, 1905ean jaio zen Laukizen, baina txiki-txikitatik Mungiako "Lauaxeta" baserrian bizi izan zen, eta bertatik datorkio pseudonimoa. 1937an hil zuten, fusilatuta, Gasteizen. Aztertuko dugun lana, *Arrats beran* liburuan aurki dezakegu beste hainbat olerkirekin batera. Olerki hau arrakastatsua izan zen, eta honen oihartzunak gaur gaurkoz ere entzun ditzakegu, esaterako Eñaut Elorrietaren abestian; aurretik, Antton Valverdek ere musikatu zuen olerki hau, eta baita Lauaxetaren beste lan batzuk ere.

Analisia hasteko, paratestuari erreparatuko diogu lehenik, izenburuari eta aipuari hain zuzen ere. Izenburuak olerkiaren nondik norakoak aurreratzen dizkigu *mendigoxaleei* buruz arituko dela esaten baitigu; bestetik aipuari dagokionez Basalduatar Kepari eskaintzen dio, bizkaitar hizlari bati, alegia. Bestetik, enuntziazio moduari dagokionez, hirugarren pertsonan kontatzen zaigu. Gaia beraz, mendigoixaleen borroka, aberriaren aldeko borroka, aberriaren askatasunaren aldekoa, dena ematen dute horren alde.

Egiturari dagokionez hiru zatitan banatzen da, zenbakiz banatzen ditu gainera. Zati guztietan, lau zortzi silabako bertso-lerroko hiru ahapaldi aurki ditzakegu, guztietan errima bertso-lerro pareetan dagoelarik, kopletan bezala, egitura beraz oso erregularra da.

Lehenengo zatian, 10 mendigoxale gazteri buruz ari zaigu, eta ikurriñak aberriaren alde borrokan ari direla adierazten digu, ikurriña baita aberriaren ikur nagusia; amaieran kantari daudela eta abestia erakusten digu. Bigarren zatian, gazteen indarra aipatzen da, guztia emateko prest daudela, herria urduri zegoela, herriaren askatzaile sutsutzat erakusten ditu, eta beste behin ere abestia agertzen da. Azkenik, hirugarren eta azken zatian, gazteek pairatzen zuten arrisku eta beldurrari buruz ari dira, odola ere aipatzen du, izan ere, asko izan ziren bizitza eman zutenak, eta amaiera borobila emateko berriz aipatzen du abestiaren zatia, zeina ikonikoa den poeman eta esanahiz betea jarraitzen duen gaur egun ere: *Dana emon biar yako / matte dan azkatasunari*.

Atal bakoitzeko baliabide azpimarragarriak aipatuko ditut ondorengo lerroetan. Lehenengo zatian, arestian esan bezala, ikurriñak eta mendiak Euskal aberria sinbolizatzen dute, askatu nahi dutena. Lasaitasuna iradokitzeko pertsonifikazio bat baliatzen du autoreak *isilik dago arratsa.* Bigarren zatian, errepikapena ematen da *didar* hitzarena hain zuzen ere, gazte hauen amaigabeko indarra goresteko erabilia dena, aberri samindu eta herri urduriaren aurrean gazte hauen borrokarako prestutasuna goresten du, talde-izaera haustezina. Mendia eta itsasoa banatzen ditu, euskal aberrian aurki ditzakegunak biak. Hirugarren zatian, elipsi bat dugu, tiro hotsak entzuten dira, eta jarraian odola belarretan, heriotza iradokitzen digu.

Zati guztietan errepikatzen diren baliabideei erreparatuz, abesti zatia da olerki honetako entzutetsuena *Dana emon biar yako / matte dan azkatasunari,* esaldi honen errepikapenarekin lortu nahi zena, nire aburuz, jendeari indarra ematea zen, eta handik urteetara Argalak ezagutzera emango zuen *Denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten* esaldiarekin lotuko nuke; izan ere, iruditzen zait esaldi horren errepikapenarekin, dei egin nahi zela borrokara, eta horretarako denon beharra zegoela. Honez gain, aipatu behar da, kantu hori berez existitzen bazen, testuartekotasun esplizituaren aurrean gaudela.

Beraz, amaitze aldera, nire aburuz, egileak nabarmen betetzen ditu olerki honekin bete nahi zituen helburuak, hots, herritarrengan borrokarako grina piztea eta Aberriaren aldeko ereserki antzeko bat sortzea, olerkiak duen metrika erregularragatik, birritan musikatu dena.

6.JARDUERA

EMAKUME IDAZLEEN LEHEN BELAUNALDIAZ

-Errose Bustintze eta Emakume Abertzale Batza

Euskal literatura berantiarra da bere osotasunean, are berantiarragoa eta ezezagunagoa ordea euskal emakume idazleen historia. Euskal literaturak, Erdi Arotik aurrera aztertuz gero, beti izan du kutsu elizkoia, gizonezkoena. Emakumeen ahotsa berriz, ezezaguna da, mundu osoan gertatzen den era berean. Erdi arotik hona, ezagun dugun lehen izena, XIX.mendean agertzen zaigu, Bizenta Mogel, Joan Antonio Mogel elizgizonaren iloba. Euskal pizkundearen garaian aurkitzen dugu, emakumeen ahotsaren pizkundea ere, hainbat ekimen eta egitasmok bultzaturik, horien artean garrantzitsuenetakoa Emakume Abertzale Batzaren sorrera, bertan antolatzen ziren hainbat emakume, horien artean azpimarragarri dugu Errose Bustintze, *Kirikiño*ren iloba, zeinaren poema izango dugun aurrerago aztergai; baina, hitz egin dezagun lehendabizi Emakume Abertzale Batzari buruz.

1922an sortu zen, eta bi aldikada izan zituen: bata 1922tik 1923ra eta bestea 1913tik 1936ra, Gerra lehertu zen arte. Eusko Alderdi Jeltzalearen baitan sortu zen erakundea zen, Irlandako ereduaren zantzuei jarraiki sortu zen, irlandar hizlari baten hitzaldi batek emakumeengan piztu zuen indarraren ondorioz; honek sustatu zuen etxean emakumeek zuten paper garrantzitsua herriaren askapenaren inguruan, aldi berean noski etxea zaindu eta erlijioaz arduratzen ziren bitartean, emakume onak ziren bitartean, alegia. Erakunde honen helburu nagusia, Eusko Alderdi Jeltzalearen erakunde izanik, “Jaungoikoa eta Lege Zaharraren” doktrina zabaltzea zen, horretarako hainbat ekintza eginez, mendigoixaleei lagundu edota hitzaldiak antolatu esaterako. Bestalde, kulturaren esparruari ere garrantzi handia ematen zioten, eta azpimarragarria da egin zuten lana eta honen oiharzuna; hainbat egitasmo antolatzen zituzten, eskolak ematea esaterako, eta bertan ematen zuten euskal kultura ezagutzera, beste hainbat gauza irakastearekin batera, esaterako makinaz-idazteko eskolak; bestetik, hitzaldiak edota jaialdiak antolatzen zituzten. Noski, kultura alorrean egin zuten lanaren harira lan idatzi ugari sortu ziren, nahiz eta bazituzten aitzindariak mende hasierako egunkarietan aurki ditzakegunak. Bestetik, idazten bazuten ere, idazten zuten hau zelako era bakarra etxetik abertzaletasun ideiak hedatzeko, gizonezkoen abertzale lanaren

osagarri bezala. Hala ere, aipatzekoa da emakume batzuk lan hau erdaraz egiten zutela, ez ordea guztiek, eta horietako azpimarragarri bat dugu beste askoren artean, Errose Bustintza.

Kirikiñoren iloba zena, 1899an jaio zen. Asko eta ondo idatzi zuen, esaterako *Euzkadi* egunkarian eta *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkarian. Iritzi-artikuluak, olerkiak eta kantuhitzak egin zituen besteak beste; bere kronikak ere entzutetsuak dira, Mañaritik idazten zituen, Francoren gudarosteak ezina sortu zuen arte, nabaria da kazetaritzarako grina osabagandik zetorkiola. Osabaren irudimen sena ere bazuen, eta ipuingile itzela izan zen, guda aurretik ipuin-bilduma bat argitaratu zuelarik. Ipuinetan ikusten da herritik asko edaten duela, bere hizketa biziaren laguntzaz, hau ere osabaren antzera. Hala ere, oraindik aipatu ez badugu ere bere olerkigintza da alderdirik ezezagunena, zeina landuko dugun ondorengo orrietan. Bere bizitza pertsonalaz ez dakigu gehiegi, eta dokumentu grafiko, hots, argazki bakarra dugu; dakigun apurraz, badakigu bere ahizpa osabarekin ezkondu zela.

Honarte beraz, ikus dezakegu emakumeon idazteko funts bakarrenetakoa gizonen osagarri izatea zela, nire aburuz, ez zuten gizonek bezain beste askatasun, bizitzako alor guztietan ez zuten antzera, idazterakoan ere ez zituzten gizonen baldintza berdinak. Esan ohi da, garai honetan emakumea indartsu ari zela herrigintzan eta euskalgintzan, eta eztabaidaezina da gorakada izugarria izan zela; hala ere, garbi ikusten da emakume hauen lana, beti zegoela gizonen lanaren azpitik, honen itzalean.

Gizonen eta emakumeen idazkera desberdina dela esan ohi denean beraz, egiazkotzat joko nuke, behintzat garai hartarako; izan ere, baldintza desberdintasunek sortutako desorekan, nahitaez gertatuko ziren aldeak estiloan; estiloan ez ezik, idazteko aukeretan, denbora esaterako, edota baldintza ekonomiko edota sozialak. Hurrengo paragrafoak eskainiko dizkiot bi generoen, hau da, emakume eta gizonen, arteko olerkiak idazteko estilo edota forma desberdintasunari buruz hitz egiteari, jardueran Errose Bustintze eta Lauaxetaren olerkiak baititugu alderatzeko; amaitzeko, nire ondorioak plazaratuko ditut datu hauek borobiltze aldera.

Enuntziazio moduari eutsiz, gizonezko guztiek zuten *ni biografiko*aren adierazpena, honen aurrean, esan dezakegu, emakume idazleei buruz gutxi dakigula, izan ere, beraien lanetan ez dute haien buruez jarduten, eta are gutxiago enuntziazio modu horretan. Bestalde,

gizonezkoen lanek emozio eta ideien artean oreka bilatu ohi duten bitartean, baliteke, emakumeen lanek alde emozionalera gehiago jotzea, honen erroa ideien mundua gizonezkoei atxiki eta emakumeei zaintza eta alderdi emozionala lotzean egon daitekela iruditzen zait. Orokorrean, idazle konprometituak ziren Euskal Literaturaren garapena sustatzeko; aitzitik, arestian garbi ikusi dugun bezala, emakumeak gizonezkoen lan hau sostengatzeko edota osagarritzeko lana egiten zuten; hala ere, azpimarragarria da emakumeek egindako lana, zituzten baldintzak izanda, izan herrigintzan zein literaturan.

Bestalde, Modernismoaren eraginez idazmoldeak izan zituen hainbat eraldaketa, baina nabarmenagoak dira gizonengan emakumeengan baino, izan ere, gizonek baldintza hobeak zituzten hauetara heltzeko. Horregatik esaten da, Errose Bustintzen idazkera herrikoiagoa dela Lauaxetarena baino, azken finean jaso zezakeena eta gertuena zuena hori baitzen herria. Gizonezkoen lexikoa hautatua zen eta hizkuntza zaindua, adjektibazio nahiz adiermazolde morfosintaktikoak bereziki ozenak eta hots handikoak erabiltzen zituzten, emakumeek aldiz, hizkuntza herrikoiagoa, xeheagoa zerabilten.

Tratatzen zituzten gaiak, abertzaletasunari lotuak ziren asko eta asko, Euskal kontzientziaren ernatzea eta iraupenaz aritzen ziren edota euskara eta euskal literatura munduratzeaz. Gai hauen inguruan gizon zein emakume aritzen ziren, baina gizonezkoek literatura gaien tratamendu modernistagoa zuten.

Olerkarien hizkuntza estiloari begira jartzen bagara, euskara berria zen baina zantzu arkaikoak zituen orokorrean. Emakumeen kasuan, Errose Bustintzeren euskara oso ona zela zioten askok, horien artean Lauaxetak ere laudorioak egiten zizkion honen idazmoldeari; azken honen idazkera jasoa eta zurruna zen, ongi egokitzen zena epikari, Lizardirena aldiz malguagoa zen, kontzeptista eta bereziki lirikoa zen, elaboratua.

Hainbat eredu literario zituzten, Lapurtera klasikoko lanak, zein klasiko greko-erromatarrak esaterako; horrez gain, garaikideak zituzten idazle espainiarrak ere hartzen zituzten eredutzat, esatearko Lauaxetak, Federico Garcia Lorca zuen begiko. Emakumeen kasuan, lehen esan dugun bezala, mende hasieran bazituzten emakume idazle batzuk aitzindari modura, baina batez ere eredutzat hartzen zituzten hauek ere gizonezkoak;

Errose Bustintzeren kasuan, eztabaidaezina da osaba zuen *Kirikiño*k bere idazmoldean, zein idazteko baldintzetan izan zuen eragina.

Amaitzeko, ondorioei helduz, argi ikus dezakegu, emakumea subjektu subalterno izan den heinean zein paper jokatu duen olerkigintzan, eta orokorrean, literaturan. Idazten hasteko helburu ere, gizonen tresna osagarri izatea zen momentutik ikus dezakegu emakumeen askatasun eza, eta emakumeoi atxiki ohi zaigun politikarako ez-gaitasuna, beti gizonen itzalean jardun beharra. Laburbliduz, emakumeen lana garai hontan hein handi batean poztekoa den arren, kritikotasunez aztertu beharko litzatekela iruditzen zait, eta oraindik gaur-gaurkoz ere literaturak esplizituki duen gizonezko izaera ezabatuz joan beharko ginateke.

POEMAREN ANALISIA:

Errose Bustintzaren *Abestitxu zarra* (1931) poema, Lauaxetaren *Artzain baten herijotzean* (1935) olerkiarekin alderatzen badugu, zenbait ezberdintasun bilatu ditzakegu.

Errose Bustintzaren olerkia herrikoia da, hizkera herrikoia darabil, herriko eta inguruko jendeak erraz ulertzeko modukoa. “Ni” poetikoa bere maitalearen heriotzari buruz ari zaigu hizketan. Bizirik zegoenekoaz hitz egiten digu, orduan zoriontsu bizi zela, baina olerkiak heriotzak ekarriko dion goibeltasunean jartzen du arreta, hau izango da benetako mamia, nagusi izango dira, nahigabea eta atsekabea.

Metrikari dagokionez, ahapaldi guztietako bertso-lerroak 8koak dira, hirugarren bertso-lerroa izan ezik, hau 10ekoa da. Errimari dagokionez ere, ahapaldi guztietako bertso-lerro pareetan topatuko dugu; ezaugarri hauek egiten dute abesti herrikoien molde berekoa izatea.

Lehenengo ahapaldia amaieran aurki dezakegu, beraz honek erakusten digu egitura biribila duela olerki honek.

Lauaxeta, aldiz, ez da hain herrikoia, neopopulista baizik. Bere olerkian heriotza agertzen bazaigu ere, artzain batena preseski, idazmoldea eta hau espresatzeko era ez dira berdinak. Sinbolismoz beterik dago bere olerkia, eta bere sentimenduak ez dira inondik inora ere azaleratzen, bigarren plano batean gordetzen dira.

Erabiltzen duen hizkera landua da, garai hartarako ez da edonork ulertzeko modukoa, Sabino Aranaren arau garbizaleei men egiten ziela argi ikus dezakegu bertan. Entzuleak parte hartu behar du olerkia ulertu ahal izateko, eta hau ez zegoen herritar guztien gaitasunen esku, horrexegatik ez da herrikoitzat jotzen.

Metrikan esperimentatu egiten du, Europako metrika berria euskal tradiziokoarekin uztartu nahi baitu; errimari erreparatuz berriz, bertso-lerro pareek eta ez-pareek errimatzen dutela ikusiko dugu.

Errose Bustintzaren olerkiaren ondoan jarriz, baliabide literario oso landuak erabiltzen ditu, metaforak zein pertsonifikazioak kasu, esaterako naturaren pertsonifikazioa, hau ez zen edonork ulertzeko erraza.

“Ni” poetikoa istoriotik kanpo kokatzen da, baina tarteka galdera erretorikoen bidez parte hartzen du, joera hau ere oso berritzailea da Lauaxetaren partetik.

Hori horrela, bi olerkien arteko desberdintasunak nabariak direla ikus dezakegu lantzen duten gaia antzekoa bada ere. Olerki hauek idazteko helburuak desberdinak izatetik haratago, ezin ahaz dezakegu emakumeek zuten askatasun murritzagoa, izan baliabide ekonomiko zein hezkuntzakoen aldetik; honen isla da Lauaxetaren poemako baliabideak landuagoak izatea.